




Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Zu**
 Egilea / Autor: **Anjel Lertxundi**
 Saila / Colección: Narratiba, 92
 Azaleko irudia / Imagen de cubierta: Antton Olariaga
 ISBN / EAN: 978-84-9109-043-4
 Salneurria / Precio: 19 € (BEZ barne – IVA incluído)
 Orri kopurua / N° páginas: 280
 Formatua / Formato: 15 x 22 cm



Lana / La obra

2012ko uztailaren hemeretziaren aldatu zen betiko liburu honetako protagonisten bizitza. Narratzailearen emazteak pankreako minbizia du. Aurrekoaren ifrentzu bihurtuko zaie handik aurrera bizitza, haren erresumako biktima apal izatera pasatuz. Orduantxe sortzen da “Zu”, eta bere eguneroko bizitzak zer ikusi gutxi izango du iraganekoarekin; haren itzala da, ezinbestean barrendu da, zorigaitzoko diagnostikoa eskutan —nola klasikoengan “urrezko abartxo” itzalen mundurako pasaporte—, bizitza berrira, xumera, zenbatez zinezkoa-gora, premiak behartuta, intentsoago, tristeago, abailduagora. Bizitzaren dimentsio ezezagun eta berria.

Itzal eta bidelagun ugari aurkituko ditu narratzaileak erresuma berriko galerietan barrena, hala nola Thomas Mann-en *Mendi magikoan*, Albert Camus-en *Izurrítean* edo Susan Sontag-en liburuetan. Haien protagonistak ere sufrimenduaren biktima izan ziren, eta beraz, erresuma bereko itzalen artean, gaixoen artean, bizi dira. Denen artean eraikiko duten unibertso literarioak dimentsio berria hartzen du, eta hango onkologo, doktore eta erizainak Xabier Letek ere maiz igo behar izan zuen “Ene mendi”ko protagonistak bihurtzen dira, nobela liluratu baten protagonistak. Betiere andrearen poz, ilusio eta malkoen atezuan. Baina ez al dago ba salmoetan idatzita Jainkoak gure malko guztiak gordeko dituela? Jakin dakigunean gureak ez direla egongo haien artean, literatura izango dugu kontsolamendu.

Bizitzaren udazkenean sakontzen duen nobela da Anjel Lertxundiren hau, heriotzaren ezinbestekotasuna bizitzaren liluraz hesitu nahi agonikoa.

Egilea / El autor

Anjel Lertxundi (Orio, 1948). Maisu eta Filosofia eta Letrak ikasketak egin zituen Donostian, Erroman eta Valentzian. Irakaskuntzan eta kazetaritzan aritu da hainbat urtez.

1970. urtean argitaratu zuen lehen liburua: *Hunik arrats artean* ipuin bilduma. Harrezkero, nobelaz eta ipuin bildumaz gainera, artikulugintza, saiakera eta haur eta gazte literatura landu ditu. Bereak dira, besteak beste, *Goiko Kale* (1973; 2000), *Aise eman zenidan eskua* (1979), *Hamaseigarrenean aidanez* (1983), *Carla* (1989), *Lurrak berdinduko nau* (1990), *Kapitain Frakasa* (1991), *Otto Pette* (1994), *Piztiaren izena* (1995), *Azkenaz beste* (1996), *Argizariaren egunak* (1998, Euskadi Literatur Saria), *Lehorreko koaderno* (1998), *Zorion perfektua* (2002), *Ihes betea* (2006), *Zoaz infernura, laztana* (2008) eta *Etxeko hautsa* (2011) eleberriak, *Konpainia noblean* (2004) *Paper-festa* (2012) narrazio liburua, *Gogo* (1999), *Mentura dugun artean* (2001), *Es-karmentuaren paperak* (2009) saiakerak. Azken horrek Saia-kerak Sari Nazionala jaso zuen 2010ean.